

**ZUMAIA LANTZEN S.A.ko  
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA.**

**88. AKTA**

Zumaian bildu da 2004ko irailaren 20an, ZUMAIA LANTZEN S.A.ko Administrazio Kontseilua

**PRESENTEAK :**

Presidentea : Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola andrea

Batzarkideak: Iñaki Aguirrezabalaga Alkorta jauna  
Emiliano Cabañas González jauna  
Asier Esnal Albizu jauna.  
Andoni Etxaniz Osa jauna  
Cristina Forcada Unanue andrea  
Manuel Zubia Artabe jauna

Idazkaria : Miren Etxezarreta Garmendia andrea.

Bertan izan dira, Luciano Pagaegi jauna, arkitektoa eta Tomas Eizmendi jauna ESARBE S.A.ren izenean.

**EGUNEKO AZTERGAIK.**

**1.2004ko ekainaren 21ean egindako Kontseiluaren akta irakurri eta onartzea, hala badagokio**

2004ko ekainaren 24an egindako 87. Kontseiluari dagokion akta irakurri da eta aho batez onartu da, zuzenketarik egin gabe.

**2.Informazio orokorra.**

Esarbe S.A.ko ordezkariak 2. Sektoreko (Puntanuetako) II. Aldiko urbanizazio obren berri eman du, eta esan du behar bezala doazela eta aurreikusitako epeak betetzen ari direla. II: Aldiko lanak, (gaur egun Otalora baserria dagoen eremua lautu eta urbanizatzeak), ezin dira hasi 2004ko abenduaren 31a baino lehen, izan ere, lehengo jabeak egun horretara arte egon litezke baserrian Salerosketako eskrituran jasotzen denaren arabera.

Kooperatibak eraikitzen ari diren etxebizitzetan lanak hasi dira berriro eta bide onetik doaz, hala ere, eraikuntzaren sektoreak egindako grebaren ondorioz atzeratuta doaz.

### **3. 1. Sektoreko Plan Partziala adjudikatzea.**

Dorleta Erausquin, Alvaro Veira eta Luciano Pagaegi arkitekturen eskaintzak ikusita, Kontseikual 1. Sektoreko Plan Partziala Luziano Pagaegi jaunari adjudikatzea erabaki du, 26.253,05 euroan (BEZ barne) eta hilabeteko epean egiteko.

### **4. Alaiko urbanizazioa hobetzeko obrak adjudikatzea.**

Hiru eskaintza aurkeztu dituzte, SOHERCON S.L. , DUMBOA S.L eta OZIO S.L enpresek. Kontseiluak lanak DUMBOA S.Lri adjudikatu dizkio 170.295,03 euroan (BEZ barne) eta 8 asteko epean egiteko, hori izan baita Zumaia Lantzen S.A.ren iritziz proposamenik onena.

### **5. Puntanuetan, TAU eta ORENA pabilioiak behera botatzeko lanak adjudikatzea.**

Honako enpresa hauek aurkeztu dituzte eskaintzak; DUMBOA S.L, eta OZIO S.L., Biak aztertu ondoren, Kontseiluak lanak DUMBOA S.Lri adjudikatu dizkio, eskaintzarik merkeena izan delako, prezioa 39.679,67 eurokoa da (BEZ barne) eta epea hiru hilabetekoa.

### **6. ADU 21 ertzean pasealekua luzatzeko lanak adjudikatzea.**

DUMBOA S.L, ERGA S.L, OZIO S.L, eta SOHERCON S.L . enpresek aurkeztu dituzte eskaintzak, horiek aztertuta Kontseiluak SOHERCON S.L enpresari adjudikatu dizkio lanak, besteak baino merkeagoa zelako beraien. Prezioa 82.110,87 eurokoa da (BEZ barne) eta epea hilabete eta erdikoa.

### **7. (Puntanuetan) 2. Sektoreko R1 eta R2 lursailak saltzeko prezioa aurreikustea.**

Gerentziak jakinarazi du 2. Sektorean (Puntanuetan), 1 eta 2 etxebizitza blokeak (30 etxe tasatuak eta 30 babes ofizialekoak) eraikitzeo proiektua ikusita, horietan behar diren zimendu bereziek eragina izango dutela eraikinaren prezioan. Hori dela eta, urbanizatutako lursailentzat lehenagotik aurreikusita zeuden prezioak berrikusi egin beharko dira. Izan ere, 2002ko irailaren 30ean egindako 77. Administrazio Kontseiluan prezioak ezartzeko erabaki zen oinarritzko printzipioaren arabera Babes Ofizialeko Etxebizitzaren sustapenen bideragarritasuna bermatuta egon behar da.

Epe laburrean etxe blokeen hormigoi eta igeltseritzako eskaintzen berri izango dugunez, aurreikuspen zehatzagoa egin ahal izango da. Hurrengo Kontseiluan emango da horren berri eta orduan zehaztuko dira prezioak.

## **8. Beste zenbait/ galdera eta eskariak.**

Andoni Etxaniz Kontseilariak jakin nahi du Esarbak Zumaia Lantzen S.A.an zer lan egiten duen. Galdetu du noiztik daraman Sozietatearen kudeaketa eta denbora horretan zenbat ordaindu zaion. Tomas Eizmendi jauna Esarbe S.Ako ordezkaria hurrengo Administrazio Kontseilura datu horiek ekartzekotan gelditu da.

Eta beste aztergairik gabe akta honek zehatz-mehatz jasotzen duen bilera bukatu da, eta nik idazkariak sinatu dut presidenteak ontzat eman ondoren..

O E  
PRESIDENTEA.

IDAZKARIA